

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroa eta EAE segurtasun publikoko arloan elkarlanean ariko dira

María José Beaumontek, Nafarroako Gobernuaren ordezkartzan, eta Eusko Jaularitzako Estefanía Beltrán de Heredia sailburuak dagokien protokoloa sinatu dute

Ostirala, 2016.eko uztailak 29

Nafarroako Gobernuko Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari María José Beaumontek eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun sailburu Estefanía Beltrán de Herediak Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolaren eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren arteko lankidetz



Beaumont eta Beltrán de Heredia Kontseilariak hitzarmena sinatzen.

protokoloa sinatu dute gaur goizean, segurtasun publikoko arloan prestakuntza emateko. Bi gobernuak segurtasun-arloan izenpetzen duten bigarren lankidetz-protokoloa da iragan [ekainaren 30ean](#) sinatu zutenaren ondoren; orduan, laguntza eta lankidetzarako oinarriak finkatu ziren polizia-arloan nahiz larrialdi, babes zibil, trafiko eta bide segurtasunaren arretan eta koordinazioan.

Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak honako agindu hau dute: herritarren segurtasuna lortzeko zerbitzu publikoetan parte hartzen duten edo esparru horretan beraien jardura betetzen duten pertsonak prestatzea; beraz, esperientziak, planak programak eta informazioak trukatzeko sustapenean interesatuta daude segurtasun publikoko alorrean esku hartzen duten kolektiboen prestakuntza-arloan; hala, prestakuntza-zentroen lankidetz eta koordinazioari esker, indarrak batuko dira helburu komunak lortzeko orduan, eta betetako lanen elkarrekiko aitortza egin ahalko da.

Lankidetzarako protokoloaren ondorioetarako, segurtasun publikoko langileak dira: Nafarroako Polizien Foru Legeak jasotako edo Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko Legean jasotako lanpostuak betetzen edo, dagokien hautaketa-prozeduraren barnean, bete nahi dituzten pertsonak; suteak itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuetan dauden pertsonak edo Nafarroako Foru Komunitateko eta Euskal Autonomia Erkidegoko babes zibileko zerbitzuetakoak, bai eta babes zibilean edo suteen prebentzioan eta itzaltzean bi Administrazioetako

erakunde laguntzaileen barnean daudenak ere, harremana edozein izanda ere.

Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak ikasketa-planak nahiz lantzen diren ikastaroen programak prestatzen lagunduko dute; horrez gain, prestakuntza-jardueren urteko planaren berri emango diote elkarri, bi erakundeek beraien eginkizunetan efizientzia handiagoa izan dezaten, eta giza baliabide, tekniko eta materialen ekonomia izan dezaten.

Gaur sinatutako protokoloaren arabera, bi zentroek beraien Prestakuntza Jardueren Urteko Planean beste erakundeak programatutako ikastaroak txertatu ahalko dituzte. Gainera, segurtasun publikoko bi sistemetan integratutako langileentzako ikastaroetan plaza-kopuru jakin bat gordetzeko eskaera egin ahalko dute, dauden baliabideak optimizatzeko asmoz. Sartze, sustapen, espezializazio edo eguneratzeko ikastaroetan prestakuntza-moduluak partekatzeko aukera ere zabaltzen da, epeak eta baliabideak optimizatzeko aldera.

Bestalde, bi erakundeek elkarri lagunduko diote erabilgarri dituzten irakasleak baliatuz ikastaroak, jardunaldiak, mintegiak eta irakaskuntza-jarduerak antolatzeko; horrekin batera, egiten dituzten prestakuntza-jardueren elkar aitortpena erraztuko dute, erabateko baliozkotzeak eginez edo zati bat baliozkotuz.

Gainera, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak bi administrazioetako segurtasun publikoko langileak beraien liburutegietan, dokumentazio-zentroetan eta antzeko zerbitzuetan sartzeko utziko dute bertako langileen baldintza berberetan.



Kontseilariak bi erkidegoetako segurtasun eskoletako ordezkariekin.